

Joera diskriminatzaileak daude artikulu zientifikoak aipatzean

Lan zientifikoak argitaratzean, gaiari buruz aurretik egin diren ikerketa esanguratsuenak aipatzen dira beti. 35 urtetako 20 milioi artikulu zientifikoetako aipamenak aztertuta, ikusi dute joera baztertzailak azaltzen direla. Izan ere, artikulua kalitatetik harago doan aldagai batek baldintzatzen du, nabarmen, hura aipatzeko izango duten joera: ikertzaileen jatorriak.

Hiru herrialdetako ikertzaileen artikuluek jasotzen dituzte aipamen gehien, etengabe: AEB, Erresuma Batua eta Txina. Eta aipamenetatik kanpo geratzeko joera dute beste herrialde batzuek: Brasilek, Mexikok eta Turkiak, besteak beste. Betiere, kalitate bereko ikerketak konparatuz. Ikertzaileek azpimarratu dute zientziaren alor guztietan gertatzen dela, gainera, eta gorantz doala joera.

Ondorioz, kanpoan geratzen ari dira, sistematikoki, jatorri jakin batzuetako ahotsak. Haien ezagutza ez da sartzen zientzia globalean. Eta horrek zientzia unibertsal eta etiko bat sortzea eragozten du. Izan ere, zientziaren narratiba ofiziala herrialde batzuen esku geratzen da, batez ere. ●



ARG.: Elhuyar.

Armiarma-espezie berri bat aurkitu dute Bardean

Armiarma-espezie berri bat aurkitu du Bardean Gabriel de Biurrun biologo iruindarrak. Bi sexutako 21 banako aztertuta deskribatu du espezie berria. Licronidae familiakoa da, eta *Agroeca istia* jarri diote izena.



Agroeca istia armiarma espezie berria.
ARG.: Nafarroako Unibertsitatea.

Nafarroako armiarmen dibertsitatea eta banaketa aztertu ditu de Biurrunek bere doktoretza-tesian. Horretarako, laginak hartzen aritu da, urtebetez, hamabost egunean behin, hiru eremu geografiko eta klimatiko desberdinetan: Kintoan, Erreniegan, eta Bardean.

Hala, espezie berria aurkitzeaz gain, Nafarroarako 124 aipamen berri ere egin ditu. Eta jasotako informazioa mapen bidez sarean erakusten duen tresna bat eta makrofotografia-sistema bat ere garatu ditu, armiarmen ikertzaile eta zaleentzat baliagarri izan litezkeenak. ●